

Kanpo Sektorea

16ko III.h. Esportazioak: Hiruhileko arteko Δ :-1,5; Δ Metatua:%+0,7

16ko III.h. Inportazioak: Hiruhileko arteko:%-2,1; Δ Metatua:%-8,8

Esportazioak %-2,0u/u jaitsi dira hirugarren hiruhilekoan. Bai EBera, %-0,9u/u, baita munduko gainerako tokietara zuzendutakoak, %-3,7u/u, jaitsi dira. Irailera arte %+0,7ko hazkundera metatu dute.

Gipuzkoako enpresen salgaien **esportazioek %-2,0u/u** egin dute behera **hirugarren hiruhilekoan**. Bilakaera beheranzkoa da berriro, hiruhileko bakar batez hazkunde aipagarria erakutsi ostean (%+7,8). Aurreko bi hiruhilekoak beheranzkoak izan ziren ere. Urtaro eraginetatik zuzendua, hiruhileko arteko bilakaera ere negatiboa da, **%-1,5h/h** egin bait du behera (%+7,0h/h II.h.an). Hau hola bada ere, **urtarrila eta iraila bitartean**, esportazioek **%+0,7ko** hazkundera metatu dute aurreko urtearekiko (%+1,4 orduan) eta 2012ko (errekor urtea) epe berekoak baino %-2,8 txikiagoak dira bakarrik

Inportazioek, bestalde, **%-13,4 u/u** egin dute behera **hirugarren hiruhilekoan**, izanik hau emaitza negatiboak ematen diren laugarren hiruhilekoa jarraian. Urtaro eraginetatik zuzendua, bilakaera negatiboa da ere, **%-2,1h/h**, baina aurreko hiruhilekoan hazkundera erakutsi ostean (%+2,3h/h 16.II.h). Horrela, **urtarrila eta iraila bitartean** inportazioek **%-8,8ko** jaitsiera metatu dute aurreko urtearekiko (%+13,6 orduan).


Esportazio bolumenak +37 milioi gehitu ditu, inportazioek, aldiz, -240 milioi galdu. Honen ondorioz, **saldo komertzialak +277 milioi edo %+11,6** egin du gora. **Estaladura-tasak +19,5 puntu** gehitu ditu eta **%207an** kokatu da.

EBera zuzendutako esportazioak %-0,9u/u eta **%-0,7h/h** murriztu dira **hirugarren hiruhilekoan** (%+9,1u/u eta %+5,9h/h 16ko II. h.an). Hau horrela bada ere, **urtarrila eta iraila bitartean** **%+2,4ko** hazkundera metatu dute aurreko urtearekiko, %+3,1 orduan.

EBetik kanpo zuzendutako esportazioak, bestalde, **%-3,4u/u** eta **%-4,3h/h** murriztu dira.

Esportazioen bilakaera

Milaka €-tan; jatorrizko seriea eta joera



Bigarren hiruhilekoko emaitzak positiboak izan ziren arren, kontutan izanik lehenengo hiruhilekokoak txarrak izan zirela, **irailera arte** EBetik kanpo zuzendutako esportazioek **%-2,0ko** jaitsiera metatu dute aurreko urtearekiko (%-1,3 orduan).

Produktuen arabera, irailera arte metatu den neurrizko hazkundera **ekipo ondasunen esportazioei, %+3,1**, eta **autogintza sektoreko esportazioei, %+13,0**, batik bat sor zaie. Ekipo ondasunen artean, makineria espezifikoa (%+2,4) eta garraio materialak (%+8,9) dira bereziki gora egiten dutenak. Aitzitik, **erdimanufakturen** esportazioek **%-8,2ko** jaitsiera metatu dute aurreko urtearekiko, neurri handi batean burdin eta altzairu esportazioen bilakaeraren ondorioz, %-19,0. Bestalde, aipagarria da ere **kontsumo manufakturen** ekarpen positiboa, **%+16,8**, eta **kontsumo-ondasun iraunkorren** ekarpen negatiboa, **%-24,7**.

Gipuzkoako esportazioak produkturen arabera

Urtetik urterako aldaketa-tasa

	Pisua 2015 ean	2014	2015					2016*									
			Ira	Urr	Aza	Met	Urt	Ots	Mar	Apr	Mai	Eka	Uzt	Abu	Ira	Met	
Guztira	100	6,0	-1,8	-0,4	-7,0	5,9	0,8	-12,4	0,1	-1,3	16,3	14,9	-5,5	-4,8	11,9	-9,9	0,7
Elikagaiak	4,8	10,2	0,4	-4,1	15,8	4,9	6,5	28,2	-18,9	29,4	-5,5	-11,1	-8,6	19,7	-18,8	10,1	-0,4
Produktu energetikoak	0,1	16,8	103,3	20,0	74,1	73,5	16,1	19,5	95,7	68,9	44,8	53,6	174	109	-44,9	65,2	61,5
Lehengaiak	1,0	-9,4	-27,3	-19,6	-10,5	41,0	22,5	-20,8	-24,3	-26,3	-28,9	-36,7	-21,2	-37,7	9,0	-6,3	-23,9
Erdimanufakturatua	23,2	-1,8	-7,5	11,2	-11,8	-1,7	-0,9	-15,1	-2,6	-14,3	-0,6	-5,1	-15,0	-13,0	15,3	-13,2	-8,2
Metal ez-ferrosoak	0,9	4,5	-5,0	-14,4	21,3	-14,0	15,3	-16,7	0,0	-12,5	-7,1	-39,6	-4,0	-1,9	-26,6	-0,9	-11,6
Burdina eta altzairua	11,1	-4,3	-13,2	28,1	-22,8	-3,5	0,9	-28,3	-14,9	-33,0	-11,4	-13,5	-21,0	-29,2	31,9	-25,5	-19,0
Produktu kimikoak	3,5	-4,2	1,8	5,6	0,4	17,0	-2,4	0,7	18,7	9,1	4,1	2,9	-1,7	4,7	15,0	-2,2	5,1
Bestelako erdi-manufak.	7,6	2,3	-3,2	-5,9	-3,6	-5,1	-4,5	-4,1	5,6	13,5	12,7	8,2	-14,0	-1,9	0,7	-2,8	1,6
Ekipamendu-ondasunak	56,4	10,3	-1,0	-5,6	-10,7	2,4	-0,9	-10,3	-5,9	0,0	25,5	23,3	-3,4	-2,7	15,7	-11,3	3,1
Makineria espezifikoa	29,9	4,6	11,3	21,0	-2,7	1,1	0,3	-6,7	0,3	15,6	8,6	13,5	-0,1	-12,1	20,9	-14,2	2,4
Bulego eta teleko. ekip.	0,7	20,1	-7,7	-43,6	214,0	-17,8	36,5	-9,7	72,7	1,4	7,5	34,8	24,1	-4,4	85,7	30,8	24,1
Garraio materiala	8,5	41,7	-52,1	-52,4	-62,4	19,1	-18,7	-53,0	-25,1	-27,0	169,9	109,8	-16,6	19,4	0,9	-33,5	8,9
Bestelako ekipo onda.	17,3	5,5	10,6	-6,6	24,6	-2,1	7,0	-1,2	-6,0	-2,3	3,3	7,1	-1,0	0,0	10,6	-1,2	0,9
Automobilien sektorea	10,1	3,4	-0,6	9,6	11,0	53,1	6,9	-35,3	44,8	8,5	20,3	58,7	14,9	1,6	12,9	0,5	13,0
Autom. eta motorrak	0,4	91,2	-54,7	13,9	2,2	5,0	44,8	246,5	38,5	7,1	5,3	41,7	7,9	-39,7	18,6	-18,0	15,9
Osagaiak	9,7	2,0	2,5	9,4	11,4	55,2	5,7	-39,3	45,0	8,6	21,2	59,5	15,3	3,5	12,7	0,9	12,9
Kontsumo-ond. iraunkor.	2,1	10,5	41,5	11,0	8,9	-23,7	21,7	-27,2	-8,3	-15,6	-3,9	-18,9	-37,4	-29,7	-25,6	-43,3	-24,7
Kontsumo-manufakturat.	2,2	-3,6	17,1	-9,0	37,8	19,4	2,1	38,9	18,7	43,4	55,2	11,4	-4,9	-12,6	19,0	0,1	16,8
Beste salgai batzuk	0,1	32,7	-37,2	-19,4	-33,1	41,5	-9,2	121,4	-30,6	-15,5	9,0	-0,7	6,0	34,4	20,2	-28,3	2,9